## CDBM

**Silvia Fernández Viguera Emakumeen Dokumentazio Gunea - Liburutegia** 1985eko martxoaren 8an inauguratu zen, eta xedea izan zen emakumeen azterlanekin lotutako dokumentazioa bilduko zuen eta emakumeek idatzitako literaturari zabalkundea emango zion toki bat sortzea.
Gure asmoa da ezagutzarako eta topaketarako gune bat eskaintzea, etengabe handitzen doan katalogo itzel hori irakurleen, ikertzaileen, ikasleen, taldeen eta, oro har, herritarren esku jartzea. Irakurketaren bidez —jakintza eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa sortzeko tresna boteretsuenetako bat baita—, funts espezializatu hau zabaldu nahi dugu, arreta jartzen baitu emakumeen eta emakumeei buruzko ekarpenetan, egoeran, eraldaketetan, lorpenetan eta jakintza- eta sorkuntza-arloetan. Gainera, Emakumeen Dokumentazio Gunea - Liburutegia leku bizia izatea nahi dugu, sinergiak eta trukeak eragiten dituena, parte hartzeko guneak sortuz, zentroaren beraren programazioaren eta beste talde, gune eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzearen bidez.

## FUNTSA

**Emakumeen, generoaren eta feminismoen** alorretan espezializatuta dago funtsa, eta **17.000** erregistro baino gehiago ditu:

- **Liburuak.**
- **Aldizkariak.**
- **Dokumentuak:** txostenak, azterlanak, eskupaperak eta abar.
- **Ikus-entzunezko materiala:** filmak eta dokumentalak.
- **Baliabide elektronikoak.**
- **Kartelak.**

**Jakintzaren arlo hauen arabera antolatuta dago:** Lan orokorrak (Bibliografia, Bibliotekonomia, Hiztegiak, Gidak, Aldizkariak); Filosofia, Psikologia, Sexualitatea; Erlijioa; Gizarte Zientziak (Soziologia, Politika, Ekonomia, Lana, Zuzenbidea, Heziketa, Etnologia, Antropologia, Feminismoa); Natura Zientziak (Ekofeminismoa); Zientzia Aplikatuak (Medikuntza, Osasuna); Artea (Hirigintza eta Arkitektura; Eskultura, Marrazketa eta Pintura; Argazkilaritza, Musika, Zinema, Arte Eszenikoak, Kirola); Literatura, Hizkuntza (Poesia, Eleberria, Narratiba); Geografia, Biografiak, Historia; Komikia; Haur Ipuinak; Gazte Literatura; Antzerkia; Dokumentuak; Filmak; Material Elektronikoa.

El **Centro de Documentación – Biblioteca de Mujeres Silvia Fernández Viguera**, cuenta con la colaboración y financiación del Gobierno de Navarra y del Ayuntamiento de Pamplona, y actualmente se encuentra ubicado en un espacio cedido por el Ayuntamiento de Pamplona.

**Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak** lagundu eta finantzatzen dute **Silvia Fernández Viguera Emakumeen Dokumentazio Gunea – Liburutegia**, eta egun Iruñeko Udalak lagatako leku batean dago.

**Horario y lugar**

Lunes – viernes de 10 a 14 horas.
Lunes – jueves de 17 a 20 horas
C/Aoiz 9, 1ª planta. 31004 Pamplona
(Edificio Casa de las Mujeres)

**Ordutegiak eta lekua**

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.
Astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 20:00etara.
Agoitz kalea, 9, 1. solairua. 31004 Iruña
(Emakumeen Etxea eraikina)

Tfno. 948 22 59 91
www.fundacionipes.org
fundacion@fundacionipes.org

Conoce nuestra biblioteca
Ezagutu gure iburutegia

Accede al catálogo
Sartu katalogoan

Fundación IPES Fundazioa · Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala · Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua · Agenda 2030

# CDBM

Centro de Documentación
Biblioteca de Mujeres
Silvia Fernández Viguera
Fundación IPES

# EDGL

Silvia Fernández Viguera
Emakumeen Dokumentazio Gunea
Liburutegia
IPES Fundazioa



DL NA 482-2022

desde 1985 etik

## CDBM

El **Centro de Documentación-Biblioteca de Mujeres Silvia Fernández Viguera** se inauguró el 8 de Marzo de 1985 con el objetivo de crear un espacio que recogiera la documentación relacionada con los estudios de las mujeres y difundiera la literatura escrita por éstas.
Nuestro propósito es ofrecer un espacio de conocimiento y de encuentro, poner este ingente catálogo en constante crecimiento a disposición de personas lectoras, investigadoras, estudiantes, colectivos y ciudadanía en general. Queremos expandir, a través de la lectura, una de las herramientas más poderosas de sabiduría y de generación de pensamiento crítico, este fondo especializado que pone el foco en el aporte, situación, transformaciones, conquistas y áreas de saber y creación de y sobre las mujeres. Además, queremos que el Centro de Documentación-Biblioteca de Mujeres sea un lugar vivo, de sinergias e intercambio, generando foros de participación a través de la programación propia y de la colaboración con otros colectivos, espacios e instituciones.

## FONDO

El fondo está especializado en **mujeres, género y feminismos** y cuenta con más de **17.000 registros** de:

- **Libros.**
- **Revistas.**
- **Documentos:** ponencias, estudios, informes, folletos, etc.
- **Material audiovisual:** películas y documentales.
- **Recursos electrónicos.**
- **Carteles.**

**Organizado en las siguientes Áreas:** Obras Generales (Bibliografía, Biblioteconomía, Diccionarios, Guías, Revistas); Filosofía, Psicología, Sexualidad; Religión; Ciencias Sociales (Sociología, Política, Economía, Trabajo, Derecho, Educación, Etnología, Antropología, Feminismo); Ciencias Naturales (Ecofeminismo); Ciencias Aplicadas (Medicina, Salud); Arte (Urbanismo y Arquitectura; Escultura, Dibujo y Pintura; Fotografía, Música, Cine, Artes Escénicas, Deporte); Literatura, Lenguaje (Poesía, Novela, Narrativa); Geografía, Biografías, Historia; Cómic; Cuentos Infantiles; Literatura Juvenil; Teatro; Documentos; Películas; Material Electrónico.

## SERVICIOS

El **Centro de Documentación – Biblioteca de Mujeres Silvia Fernández Viguera** ofrece un servicio gratuito y abierto a todo el público con el fin de fomentar la lectura, el estudio y la investigación con perspectiva de género.

**Sala de Consulta:** información y acceso directo a los fondos y Sala de Lectura.

**Préstamo:** libros, películas, material electrónico, carteles, etc.

**Catálogo en línea:** www.fundacionipes.org/biblioteca/

**Biblioteca digital:** contiene documentación a texto completo para poder consultar y descargar. Dentro de dicha biblioteca digital destaca la documentación histórica referida al Movimiento Feminista de Navarra en la transición.

**Préstamo interbibliotecario:** gracias a nuestra participación en la Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres del Estado Español y nuestra colaboración con la Red de Bibliotecas Públicas de Navarra, podemos tramitar el préstamo interbibliotecario, permitiendo a las personas usuarias acceder a obras existentes en otras Bibliotecas.

**Asesoría bibliográfica especializada** sobre temática de género y feminismos; autoras y autores; debates sociales de interés y actualidad; así como ponentes expertas feministas y, recursos institucionales y sociales existentes.

**Programación propia:** presentaciones de libros e investigaciones, clubs de lectura, foros, talleres y cursos.

**Difusión de novedades y boletines** temáticos del fondo documental.

**Visitas guiadas concertadas:** para conocer el espacio y la colección.

El **Centro de Documentación- Biblioteca de Mujeres Silvia Fernández** Viguera está integrado en la Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres del Estado.

## ZERBITZUAK

**Silvia Fernández Viguera Emakumeen Dokumentazio Gunea - Liburutegiak** doako zerbitzua eskaintzen du, herritar ororentzat irekia, irakurketa, azterketa eta ikerketa bultzatzeko generoko ikuspegiarekin.

**Kontsulta-gela:** informazioa eta sarbide zuzena funtsetara, eta irakurketa-gela.
Mailegua: liburuak, filmak, material elektronikoa, kartelak eta abar.

**Online edo sareko katalogoa:** www.fundacionipes.org/biblioteca/

**Liburutegi digitala:** testu osoko dokumentuak ditu, kontsultatu eta behera kargatu ahal izateko. Liburutegi digital horren barnean, Trantsizioko Nafarroako Mugimendu Feministari buruzko dokumentu historikoak nabarmendu behar dira.

**Liburutegi arteko mailegua:** Espainiar Estatuko Emakumeen Dokumentazio Gune eta Liburutegien Sarean parte hartzen dugunez eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean lankidetzan aritzen garenez, liburutegi arteko mailegua izapidetu dezakegu, hartara, erabiltzaileei beste liburutegi batzuetan dauden lanak eskuratzeko aukera emateko.

**Aholkularitza bibliografiko espezializatua** generoko gaien eta feminismoen gainean; egileak; intereseko eta gaurkotasuneko eztabaida sozialak; txostengile aditu feministak, eta dauden erakunde- eta gizarte-baliabideak.

**Programazio propioa:** liburuen eta ikerketen aurkezpenak, irakurketa-klubak, mintzaguneak, tailerrak eta ikastaroak.

Dokumentuen **funtseko gaikako buletinak eta nobedadeak** zabaltzea.

**Bisita gidatu hitzartuak:** gunea eta bilduma ezagutzeko.

**Silvia Fernández Viguera Emakumeen Dokumentazio Gunea – Liburutegia Espainiar Estatuko Emakumeen Dokumentazio Gune** eta Liburutegien Sarean sartuta dago.